



## Txikitatik teknologia berriekin trebatzen

**BERASTEGI** ▶ Aldizkari eta irrati  
berriari esker, eskolan egiten dutena  
herrira zabaltzen dute ikasleek ▶ 6



Kantu afaria, ostiralean. HITZA

**AMEZKETA** ▶

50 bat lagun  
elkartu ditu  
Euskara  
Elkartearen  
kantu afariak

Antolatzaileak pozik  
dira; Inauteri ondoren  
proiektu berriei ekingo  
dietela iragarri dute ▶ 5



HITZA

**Bolada txarrarekin amaitzea lortu dute**

**TOLOSA** ▶ Azkenean irabazi egin du Laskorain areto futbol taldeak,  
Beti-Arinen aurka (6-5); galdutako postuak berreskuratu nahi dituzte ▶ 2

**LEITZA** ▶

**Saharako errefuxiatuei  
laguntzeko dirua biltzen  
hasi dira Karrapen**

Tindufeko kanpamenduetan, uholdeek  
«inolako babesik gabe» utzi dituzte  
12.000 familia; premia larria da ▶ 7



Kanpamenduetako bat,  
uholdeen ondoren. HITZA

**TOLOSA** ▶

**Leidorreko ekipamendua, esleituta** ▶ 2



*Pertsonak hezitzea  
eta osatzea  
gure erronka*

**JESUSEN BIHOTZA  
IKASTOLA**

— 2-16 urte bitarteko hezkuntza —  
Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza
- Kalitatezko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)  
943 69 20 58 (Txermin auza • Villabona)  
943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)

[billabona@ikastola.net](mailto:billabona@ikastola.net)



## TOLOSA ▶

**Inauterietan Usabal itxiko dute, urtegia hustuko baitute**

Hilaren 23tik 28ra egingo dute, biak barne; hainbat alde ere irekiko dituzte

## ERREDAKZIOA

Usabal kiroldegia itxita egongo da Inauterietan, bertako arduradunek jakitera eman dutenaren arabera. Itxiera, beraz, otsailaren 23tik, Ostegun Gizona, hilaren 28ra bitarte, Asteartita, izango da, biak barne.

Izan ere, otsailaren 18ko erabilera kolektiboko igerilekuen gaineko osasungitza araudiaren 32/2003 dekretuaren arabera, gutxienez urtean behin hustu egin behar dira kiroldegiko urtegiak, «desinfektatzeko eta berrituzeko».

Hori dela eta, legeria sanitarioak dioenari jarraituz, instalazioak itxita egongo diren egunetan era honetako lanak egingo dituzte, besteak beste: konponketak, erremateak, legioelosiaren kontrako tratamendu prebentiboa, kiroldegi osoaren garbiketa eta hainbat hobekuntza. Hau guztia «instalazioen mantentze onerako», eta era berean, «ahalik eta zerbitzurik onena eta seguruen eskaintzeko» Usabal kirol eta aisialdi gunearen erabiltzaile guztientzat.

Tolosako Udalari «garai egokia» irudituz zaio Inauterietakoa, bazkideei «ahalik eta kalte gutxien egiteko», eta bost minutura Villabonako instalakuntzak erabil daitezkeela aintzat hartuz; txartel bera erakutsiz, beraz, kirola egiten segitzeko aukera izango dute.

Bestalde, eta etenaldi horren ondoren, oraindik ireki gabe zeuden hainbat alde zabalduko dituzte; hain zuzen ere: squash kantxak, padelaren aritzekoak, frontoi txikia, tatami judoa, arku tiroa, behereko solairuko aldagelak, kirol elkarteen bulegoak eta bilera gela.

## TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA



Larunbateko garaipenak emaitza txarrei eman die amaiera. HITZA

**Beharrezko garaipena horitxoentzat**

Azken partidetakoa bolada txarrarekin bukatu du Laskorainek Beti-Arin gaindituz

## IÑIGO ASENSIO

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Laskorainek joandako larunbatean Usabalen Beti-Arin taldearen aurka jokaturiko norgehiagokan. Horitxoek 6-5 irabazi zieten beren aurkariei, azken hiru jardunaldietan jasotako porrotei amaiera emanaz. Azken partidetan «betidinik tolosarren jokua ardatz izan diren defentsa eta kontraerasoak behar bezalako emaitzak aurkitu ez izanak» Egizabal entrenatzailea «ideia garbi eta berrituekin» jokatzera behartu zuen. Norghegiakoa bikain hasi zen etxekoentzat, Alonsok areaz kanpotik egindako jaurtiketa batek sarerako bidea aurkitu zuenean. Zornotzarrek berdinketa lortu zuten minutu gutxiren buruan, partida borrokatua izango zela erakutsiz. Murgiren eta Saldiasen goleak 3-1ekoa ezarri zuten markagailuan, partida berriro desorekatuz, baina kanpotarek bigarren gola lortu zuten jokaldi ikusgarri baten bidez.

Hala ere, etxekoek ez zuten etsi eta kontraerasoan eginiko jokaldi bikain baten ostean Barriolak gola lortu zuen. Atsedena iritsi baino lehen, berriz, Beti-Alaik gol berri bat lortu zuen, lehen zatia 4 eta 3koarekin amaituz.

Bigarren zatian Saldiasek eta Amatrainen lortu zituzten golak Laskorainentzat, eta etsaiek beste bi gol sartu ondoren, etxekoek «asko sufritu eta gero» lortu zuten emaitzari eustea. Larunbatean, Jabi delegatua, Arregi, Saldias, Telletxea, Barriola, Yustos, Alonso, Amatriain, Murgi, Gil eta Domente jokalariek lortu zuten Beti-Arin talde bizkaitarraren aurkako garaipena.

Datorren astean, Astigarragako Ceramicas Nogales taldearen aurka neurtuko dira horitxoak sailkapenean galdutako postuak berreskuratzen saiatzeko. Harrobiari dagokionez, Alonsoren mutilek 4-3 irabazi zuten asteburuan, eta Murraren taldeak, berriz, 1-7 galdutuz.

## TOLOSA ▶ HIRIGINTZA

**Leidor antzokiko ekipamendua, esleituta**

Ekipamendua zein enpresek jarriko duten erabaki du Udalak azken gobernu batzarrean

## ERREDAKZIOA

Leidor antzokiko ekipamenduko atal ezberdinak zein enpresek jarriko dituzten eta hauek suposatuko duten kostua zein izango den erabaki zuen Udalak otsailaren 6an egindako gonbernu batzarrean.

Lehenengo atalean, hornikuntza eszenikoari buruzkoan, honako hau erabaki dute: Aurrezku diren 8 enpresetatik, lan hauek Chemtrol Division Teatro S.A. enpresak egingo dituela, 730.764,74 euroko kostuarekin. Ekainaren 1a baino lehen lanak amaitu behar duela izan da Udalak arlo honetarako jarritako baldintza.

Bigarren atalean, eserleku eta palkoen aukerik dagokionean, honako hau erabaki du: «Beren zerbitzuak eskaini dituzten 5 enpresetatik instalazioa Ascender S.L. enpresak egingo du, 183.222 euroko kostua izango duelarik». Kasu honetan ere, instalakuntza lanak ekainaren 1a baino lehen

bukatuta egotea jarri dute baldintza gisa.

Honez gain, altzari eta osagaien hornikuntzari dagokion atalean aurrezku diren hiru enpresetatik, lanak Bigara, Equipamiento de Oficina S.L. izeneko enpresak egingo ditu, 22.092,61 euroko aurrekontuarekin. Eta, aurreko bi atalean bezala, obrak amaitzeko epea ekainaren 1ean finkatu dute.

Leidor antzoki barneko lan hauek gain, kanpoan dagoen Gipuzkoa plazako urbanizazio obren zuzendaritza Peña Ganchegi y Asociados enpresari ematea erabaki du Udalak, aurrezku diren 41.396,92 euroko aurrekontua onartuz, Leidor antzokia eta inguruko etxebizitzaren artean dagoen gune publikoko lanak zuzendu dituzten.

Erabaki hauek guztiak hartuak daude dagoeneko. Orain, beraz, ekainerako espero den Leidor berriaren estreinaldia ikustea besterik ez da gertatzen.

## VILLABONA ▶

**41 urteko gizon bat desagertu da Villabonan**

Alejandro Urkiano Seguroa Villabonako herritarra desagerturik dago urtarillaren 24ko gauetik. Bere senideek aipatu dutenez, egun hartan gurasoekin egon ondoren, bere etxera zihoala esan zuen, eta orduz geroztik ez dute hari buruzko berririk jaso. Dirudienez, ez zuen ihes egiteko arrazoirik. Zerbait jakinez gero, 615 006 102 edo 635 005 933 telefonoetara deitzea eskatu du sendiak.

## TOLOSA-IBARRA ▶ XAKEA

**Xake taldea laugarren Gipuzkoako Ligan**

Iragan larunbatean Gipuzkoako Ligako 5. txanda jokatu zen. Hirugarren Mailan Tolosa-Ibarra taldeak liderraren bisita jaso zuen, Bergarako Atletiko Zaleak. Bina berdindu zuten etxekoek, Mujikaren eta Morearen puntuei esker. Taldea orain laugarren da, Azkoitiko Anaitasuna-Kakuterekin berdinduta. Talde horrekin jokatu beharko du, gainera, datorren astean. «Oso garrantzitsua» izango da Azkoitian emaitza ona lortzea laugarren postuari eusteko; izan ere, hori baita «igoera faserako sailkatzeko balio duen azpen postua».

## TOLOSA ▶

**Haur Eskolako aurrematrikula zabalik**

Tolosako Udalaren Haur Eskolak 2006-2007 ikasturterako aurrematrikula epea zabaldu du, martxoaren 1a bitarte. Eskaintza 2005 eta 2006ean jaiotakoei dago zuzendua, eta lau txanda daude aukeran. Informazio gehiagorako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Zerbitzura jo behar da (Plaza Zaharra, 6. 943 69 74 53 edo 943 65 44 66) edota Haur Eskolara (Bera-zubi. 943 67 36 98).

**MENDI-ALDE**Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaumartzeak...*Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

**SUKALDARIA**

Tolosako taberna batean pintxoak eta bokatak egiteko. Astean 20 ordu eta igandean jai.

Tel.: 660 178 183

GUTUN@K ▶

Beste behin

Beste behin frogatuta geratu da telebista kudeatzeaz arduratzen direnek ez dituztela gustuko programa hezitzaileak, zer pentsa ematen dutenak, aberasten gaituztenak, besteak hobeto ulertzen laguntzen digutenak... Zergatik bestela erabaki dute, ez bat eta ez bi, *Beste gu* programa kentzea? Zein izan da arrazoia? Nahiago dute garuna ihartzen duen zaborra eskaintzen jarraitu; beste kateetako programa hutsen kopia kaxkarrez osatu, kirolak eta bereziki futbolak uzten dituen ordu urriak.

Zuri, Dani, eta zurekin lan egin duen taldeari, milesker egin duen lan bikainagatik. Programak pantaila aurrean izan duen bitzita laburrean asko ikasi dugu. Gai asko jorratu dituzue eta haiek tratatzerakoan sentsibilitate handia erakutsi duzue, beste programa askotan ez bezala. Zorionak. Bazen garaia lehiaketak, sentsazionalismoa eta elkarren trapu zikinak astintzea besterik bilakatzen ez duten programak alde batera uzteko!

Eutsi goiari, telebista entretenituko tresna izateaz gain hezitzailea ere izan behar duela sinesten duen jendea etorriko da eta!

MIREN URKOLA ▶ TOLOSA

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212  
▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarralde. Osasun etxea:

672411

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitz): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurreremendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

INAUTERIAK ▶

NOELIA LATABURU

«Zaldunita bezperako danborradan Galtzaundirena zaindu behar da, txantxoak eta beste Inauterietako pertsonaiak berreskuratu behar dira; danborrada osoak arinago joan behar du, eta ez du zertan taldetik taldera hainbesteko tarterik egon». Hitz hauek baliatu zituen Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak iazko helduen danborradaren gaineko balantzea egiterakoan. Balantze hau abiapuntu izaki, «aldaketa baten beharra» ikusi zuten. Hala, eta iragan osteguneko Festa Batzordean hartutako erabakiarekin bat eginez, berrikuntza batzuk barneratu dituzte.

Danborrada 22:30ean abiatuko da Triangulotik Galtzaundi jada zintzilik egongo delarik, igotzearen parodia ekidiz. «Horrela arintasuna lortuko dugu eta 00:00etarako danborrada berriro Triangulora bueltatuko da». Ondoren etorriko da, hain zuzen ere, berrikuntzarik handiena: Mulanbo eta Legazpiko eta Bilboko taldeen eskutik, batukada izango da. Hauek ere Triangulotik abiatuko dira —guztira 50 lagun inguru izango dira— eta Rondilla kaletik jaitsiko dira. Bertan batukada eta danborrada uztartuko dira, «giroa alaitzeko eta danborrada osatzeko». Izan ere, iaz «oso tristea izan zen ikuskizunik ez izatea; Udaberri dantza taldekoak ere ez ziren irten».

Bestelako aldaketak

Erabakia berandu hartu dute Festa Batzordeko ordezkariak, eta askotariko erreakzioak sortu ditu. Hasiara batean, danborrada arratsaldera aurreratzea zen asmoa. Haur Danborradaren jarraia, «gauekoa desfile luzea eta aspergarria zelako». Haatik, elkarreetako hainbat ordezkari haien desadostasuna azaldu zuten; musikarien arazoa era bazegoen, «danborrada ingelesa eta Berazubikorenak, kasu». Datorren urterako ere «aurtegoan airean» geratu diren hainbat ideia garatuko dituzte. Esaterako, Asvineneakoekin saiotsoren bat egin ahal izatea, «danborrada hutsik ez ateratzeko».

Bestalde, txosna guneak eta barrake ohiko errotazioa jasangoko dute. Hala, txosnak aurretan Euskal Herria plazan jarriko dituzte eta Artxiboa barraketarako atonduko dute. Karrozak Gorrititik abiatuko dira eta txarangak Triangulotik Korreo kalera igaroko dira, kalejiran ez gurutzatzeko. Berazubi txaranga ofizialekin ariko da Astelenitan zezen-plazan, elkarreak 25 urte bete dituelako.

# Batukadak osatuko du helduen danborrada, «arintasuna» lortzeko

Mulanboren eta Legazpiko eta Bilboko taldeen doinuak danbor hotsekin uztartzea erabaki du Festa Batzordeak



Iazko danborradaren ostean, «arintasuna» lortu behar zela erabaki zuten. IRATXE ETXEBESTE

## Konpartsen eta karrozen lehiaketa

Iaz berritu zuten konpartsen eta karrozen lehiaketa. Aurtengo oinarriak eta ondorengo sariak ere eman ditu jakitera Festa Batzordeak. Guztira, sei sari banatuko dituzte: karrozen lehen saria, plataformadun konpartsen lehen saria, 13 eta 25 partaide arteko konpartsen lehen saria, 6 eta 12 partaide arteko konpartsen lehen saria eta 1 eta 5 partaide arteko konpartsen lehen saria.

Epaimahaia Tolosako Udalen eta lehiaketan parte hartuko duten ordezkarien artean adostuko dute. Zazpi partaide izango ditu: Festa Batzordeko ordezkari bat, Tolosako Udaleko ordezkari bat eta lehiaketan parte hartuko duten bost ordezkari. Dagoeneko izena eman duten talde guztiek dirua jasoko dute, parte hartzen duten mailaren arabera. Aipatutako kopurua jasotzeko



Berazubiko karroza, iaz. HITZA

taldeak argazki bat aurkeztu beharko du, martxoaren 10a baino lehen, non partaide guztiak azaldu beharko duten. Halaber, data, izen-emate zenbakia, izenburua, konpartsa edo karrozaaren azalpena eta arduradunaren 20 digituak azaldu beharko dute, argazkiaren atzealdean.

Epaimahaiaren erabakia martxoaren 6an, Pifñata igandean, jakinaraziko dute. Saro banaketa, berriz, udaletxean bertan burutuko dute, aurrez Udalak egingo duen deialdi baten ostean.

Izena eman dutenek arau batzuk bete beharko dituzte. Batetik, karrozek eta konpartsek ezingo dute publizitaterik egin; karrozek eta konpartsek enbolutuak behin amaitu erdialdera bueltatu beharko dute 17:30ak baino lehenago. Horrela ez bada, Zezen Plazan geratu beharko du txarangen kalejira hasi arte. Karrozen eta konpartsen emanaldi guztiek 01:00etarako amaitu beharko dute eta karrozek su-itxalgailua eman beharko dute. Iazko inauterietan lehiaketa berria «arrakastatsua» izan zela adierazi zuten udal ordezkariak, festen gaineko balantzea egiterakoan, eta «hala izanik, aurretan ere oinarri berberak erabiltzea» erabaki dute. ◀

## VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Irakurzaletasuna bultzatu eta idazlea zuzenean ezagutzeko saioa egin zuen Arrietak LH2ko ikasleekin. i.g.

# Ahokotasunean trebatzeko tailerrak

Ikasleekin ahoko harremana lantzeko eta irakurzaletasuna bultzatzeko prestatzen ari dira Flemingo irakasleak

IMANOL GARCIA

Villabonako Fleming ikastetxe-ko irakasleak ahokotasuna eta kontalaritza lantzen ari dira Yolanda Arrieta idazlearekin. «Irakurketak beharra ikusten genuen gai horietan formatzeko», dio Gloria Sarasak, Flemingeko ikasketa buruak. «Bi helburu ditugu ikastaro honekin. Alde batetik, nola landu ikasleenganako ahokotasuna; eta, bestetik, nola motibatu haurrak gehiago irakur dezaten».

Izan ere, ahokotasunaren eta kontalaritza literatura nola erabili erakusten die Arrietak: «Irakurketak ozen nola egin, bai bat-batekoak, bai gai jakin baten inguruan; olerki txikiak eta ipuin txikiak nola erabili...» lantzen dituzte tailerretan.

Flemingo ikasleekin ere izan zen herenegun idazlea. LH2 mailako haurrek, irakurtzen



Flemingo irakasleak Arrieta idazlearekin tailer batean. HITZA

hasi berriak, Arrietaren *Aste-beteko kontuak* liburua irakurri dute. Irakurzaletasuna bultzatzeko saioa izan zen, eta ikasleek idazlearekin harreman zuzena izateko.

Yolanda Arrietaren ustez, «irakurtzea errito bat da eta horrek leku jakin bat eskatzen du, denbora jakin bat eta ohi-

tura bihurtzen joatea». Gurasoekin ere egin ditu tailerrak, eta hauek «denbora falta» argudiatzen dute seme-alabei irakurtzen laguntzeko. «Gaurko gizartean ez da erraza. Denbora eskatzen dute liburuek»; baina gurasoek irakurzaletasuna bultzatzeko agertzen duten «gogoa» ere aipatzen du.

## VILLABONA ▶ MENDIA

## Aizkardikoen igandeko ibilaldia Urdaibai aldean



Gaztelugatxeko baselizatik abiatuko da ibilaldia. HITZA

## ERREDAKZIOA

Aizkardikoen Bizkaira egingo dute datorren igandeko mendirteera. Gaztelugatxetik Gernikara egingo dute ibilaldia. Baseliza ezagunetik abiatuta hainbat mendi igoko dituzte: Burgoa (452 metro), Garbola (477 metro), Manukolanda (407 metro) eta Sollube (686 metro). Azken gailur honetatik aukera izango da Sollubeko gainera joateko eta

bertan amaitzeko ibilaldia (4 ordu), edo Gernikaruntz abiatzeko (6,5 ordu). Ibilaldian zehar Urdaibaiko badiaren ikuspegi ederraz gozatzeko aukera izango dute mendizaleek.

Izena emateko 943 69 44 58 telefonora dei daiteke, edo Aizkardikoen egoitzara azaldu. Bihar amaituko da horretarako epea. Igandean goizeko zazpitan abiatuko dira mendizaleak Olaederra kiroldegira ondotik.

## 18/98 AUZIA ▶

## Egibar astelehenerako osatuko dela ebatzi dute

## ERREDAKZIOA

18/98 auziko epaiketa bertan behera utzi zuen atzo epaimahaiak, eta datorren asteleheneran jarraituko duela agindu, Mikel Egibar zizurkildarra ordurako sendatuko dela ebatziz. Egibarrek biriketako infektzioa dauka, eta herenegun epaiketan egotera behartu zuten 40 graduko sukarra izan arren. Egun horretan ospital batera eman zuten analisiak egiteko eta atzo, epaiketa hasi

aurretik, auzi medikuak neumonia zuela adierazi zuen. Epaimahaiak epaiketa bertan behera uztea erabaki zuen datorren astelehena arte eta tarter horretan zizurkildarra sendatuko dela adierazi du.

Lan arloan eta arlo ekonomikoan ez ezik, epaiketa beren osasuna kaltetzen ari dela salatu zuten atzo auzipetuek Madrilan, Casa de Campoko Espainiako Auzitegi Nazionalaren epaiketa aretora sartu aurretik.

## hilberria ▶



Martin Txapartegi  
Dorransoro



Zure sendiak

Elizkizunak GAUR, 19:00etan,  
Jasokundearen Amaren parroki elizan.

ERRETERIA, 2006ko otsailaren 15a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitz.a

PILOTA ▶

# Euskadiko Txapelketa ona egin dute bi pilota eskolek asteburuan

Garaipen errazak alde batetik eta porrota nabariak ere jaso dituzte Aurrera-Saiazekoek eta Zazpi-Iturrikoek



Aste honetan Zazpi-Iturriko Sukiak, Olaetxeak eta Arzelusek jokatu dute txapelketetan, besteak beste. N. U.

## NEREA URBIZU

Ez da makala eskualdeko pilotariak egiten ari diren denboraldia. Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri pilota eskolek, asteburu honetan, tanto asko egin dituzte orokorrean, eta partida borrokatuak jokatu. Hain justu, emozioz beteriko hainbat norgehiagoka ikusi ahal izan ditu pilotalekura joan denak.

Udaberri Txapelketan oso ondo aritu dira Aurrera-Saiazekoak, bi partida soilik galdu baitituzte. Kadeteen artean Lasa-Lizarribar bikoteak ezin izan zuten garaipena lortu Oiarzunen, 12 tanto egin baitzituzten. De la Sotilla-Zubiri bikotea, ordea, garaile izan zen Oiarpe eskolako aurka, oso partida borrokatua jokatu ostean, 22-21 izan baitzen emaitza. Hernanin jokatu eta, Belokik eta Mugikak 15 tanto egin zituzten.

Ezin berdina esan senior mailakoek, bi partidak garaitu baitzituzten Beotibarren. Telleria eta Huarte hasi ziren 11:00-etan jokatzeko, eta izugarriko emaitza lortu zuten Ilunpekoen kontra, 22-1ekoa. Ondoren, Aretxabaletakoek kontra aritu ziren Onsalo eta Mujika, eta 22-17 irabazi zuten.

Zazpi-Iturriren kasuan jubentzen mailako Zabalak eta Garmendiak lortu zuten garaipena Eibarrekoen kontra, arerioek 4

tanto besterik ez baitzituzten egin. Olaetxea-Otegi kadeteek 13 tanto egin zituzten, eta nagusien mailako San Juanek eta Zubillagak 7 tantorekin bukatu zuten partida. Jubeniletan, Aurrera-Saiazeko Mugikak ezin izan zuten Leitzan irabazi, baina bai maila bereko Irazusta eta Telletxea Beotibarren, 22-8ko emaitza lortuz.

22 urte azpiko mailan bi partidetatik bi irabazi zituzten: Senperenak 22-13koa lortu zuten Tolosan, eta Aspe-Orbegozo bikoteak Oizpekoak 13 tantorekin utzi zituzten.

Senior mailan zapore gazi-gezak utzi die asteburuko jardunaldiak Aurrera-Saiazekoei: eskuz banaka Zapirainek erraz gaudituz zuten Joko Alaieko pilotaria. Baina elite mailakoan, garaipena ia eskuetan izan bazuten ere, Bellosok eta Oteizak ez zuten irabazi, 22-19ko emaitzarekin bukatu baitzen norgehiagoka.

Zazpi-Iturrik ez du horrenbeste zorterik izan, baina garaipen garrantzitsuak lortu zituzten asteburuan: Iraola eta Sukia Amurrioren izan ziren eta garaipena lortu zuten, 22 eta 13ko emaitzarekin. Arzelus kadeteak, ordea, galdu egin zuten Ortuellakoek kontra, 16 tanto eginez. Gazteen artean, Roponek eta Legarretak garaipena aise lortu zuten, aurkariek 6

tantotan utzita. Legarretaren joko ona azpimarratu dute taldeko ordezkariak.

Nagusien artean, eskuz banaka aritutako Igor Baez izan zen Amezketara garaipena ekarri zuena, partida lehiatua eskaini ostean: 22-19 amaitu zen. Amezketarrak eskainitako «partida bikaina» goraiatu dute arduradunek. Baez-Garmendiak 22-12 galdu zuten, eta Elurbe-Martinez bikoteek ez zuten partida ona egin; izan ere, 3 tanto egitea besterik ez baitzuten lortu.

Hurrengo asteburuan ere partidak eskainiko dituzte eskualdean bi pilota eskolek. Aurrera-Saiazek, gainera, Berria Pilota Txapelketan jokatu du igandean, Huarte taldearen aurka.

## AMEZKETA ▶ EUSKARA



Kantu afarian giro polita sortu zen. HITZA

# Euskara elkartearen kantu afari bikaina

Ostiralean 50 bat lagun elkartu ziren goiko lokalean, abesteko eta baita ikasteko ere

## N. URBIZU

Ez da Amezketako Euskara Elkarteari egingo duen azkeneko kantu afaria izango. Hala diote, behintzat, aurreneko honetan izandako harrera ona ikusirik.

Abaltzisketako Antton Iztuetarekin aritu ziren kantuan, bapo afaldu ondoren, ostiral gauean goiko lokalean elkartu ziren amezketarrak. Guztira, 50 lagun inguru bildu zirela adierazi diote Htzari antolatzaileek: adin orotarikoak, gazte, ez hain gazte, nahiz gazte sentituzten zirenak ere hurbildu ziren; eta denek ere ederki asko pasatu zuten.

Afaria lokalekoek beraiek prestatu zuten, baserriko oioskua izan ezik, horiek Ogi-Berri okindegiko labean prestatu baitzuten, jakitera eman dutenez. Kafearrekin batera, pasteltxoak jan zituzten afarian joan zirenek. Kopatxoak ere hartzeko aukera izan zuten.

Asmoa zen bezala, kafe garaian hasi ziren kantari. 33 kanta izan ziren denera. Afarian haur garaiko kantaren bat edo beste ere abestu zu-

ten, kanon eginez: *Sua amaitzean*, aski ezaguna den *Ran roberran...* Hasieran gazteak hasi baziren ere, ez zen asko itxaron behar izan beste guztiak abesten hasteko.

Kantuak jarraitu ahal izateko, horman abestien letrak jarri zituen Antton Iztuetak. Kantu ezagunak entzuteko eta abesteko aukera izan zen goiko lokalean, amezketarren ahotan; betiko euskal kanta bikainak, alegia.

Iztuetak prestatutako kantuen zerrenda programa bereziarekin (Power Point) kantuzaleek abestu egin zuten, gehi hara eramandako CDen laguntzarekin. Kantuez gain, euskal kulturaren gaineko zertzelada batzuk ere erakutsi zituzten hark: bertsolari ezagun batzuen bizimodua eta linugintzari buruzko azalpen batzuk, besteak beste. Oso gau kulturala bizitu zuten Amezketan. 1:30ak arte iraun zuten kantu afariak.

Momentuz, Inauterietan pasatu arte atseden hartuko dute Euskara Elkartekoek, eta bueltan bizpahiru proiekturi berriro helduko diete.

Hirukide  
 2006ko otsailaren 15a  
 Tolosa, 481 012 000  
 481 012 000  
 481 012 000  
 www.hirukide.org

KALITATEKO HEZKUNTZA

## BERASTEGI ▶ HEZKUNTZA

IÑIGO TERRADILLOS

**A**zken teknologietara ohitu, eta horiek ezagutzea eta erabiltzea ezinbestekoa omen da. Izan ere, gero eta azkarrago doaz berritzen, eta gure beharretan ordenagailuak bezalako tresnak oso arrunt bilakatu dira. Teknologia berriei duen garrantziaz jabeturik, Berastegin hasiak dira gaztetxoekin, ohiko ikasgaiekin batera, tresna eta gailu berrienak eta modernoenak erabiltzen.

Sicos informatika enpresa izan zen proiektua aurkeztu zuena. «landa eremuko herrialdeetan teknologia berriak sartu, eta alor desberdinetan erabiltzen ikastea eta gazteen sortzeko gaitasuna areagotzeko» helburuarekin. Hala, Europatik jaso zuten diru laguntzarekin, eta Berastegiko Udalak emandakoarekin, Muñagorri eskolan hasi ziren lanean proiektua martxan jarri arte. Aldizkaria egitea, irratia eta telebista abian jartzea, eta eskola azken teknologiez hornitzea dira abiarazi berri duten proiektuaren oinarriak. Lehenengo pausua ordenagailuak, mahai gainekoak nahiz eramangarriak, kablirik gabeko barne sarea, mp3 grabagailuak, eta erabiltzen anitzeko programak eskolan sartzea izan zen, eta hurrengo horiek nola erabiltzen diren irakasleei irakastea gero hauek, era berean, ikasleei irakasteko.

## Herritarrei zabaldu

Hastapenekoak egin ondoren, pasa den urteko ekainean kaleratu zuten aldizkariaren lehendabiziko alea, eta hiru hilabete bakoitzean ale berria herrian zabaltzeko asmoa dutela azaldu dute Muñagorri eskolan. Irratiaren kasuan, lehen ere bazuten eta ikasleek erabiltzen zuten, baina digital bidez emititzen dena gehitu zaio orain.

Ikasleek eskolan egiten dituzten lanekin, eta bertan antolatzen dituzten jarduerekin osatzen dituzte aldizkariko erreportaiak eta Xaguxar irra-



Ohiko tresneria eta teknologia modernoak erabiltzen ikasi dute Muñagorri eskolako ikasleek. I. TERRADILLOS

## Gaztetxoekin hezkuntza azken teknologiek

Eskolan egiten dutena herrian zabaltzen dute ikasleek aldizkari eta irratia berriaren bitartez



Xaguxar irratia maneiatzeko ordenagailua eta kontrol mahaia erabiltzen dute. I. TERRADILLOS

tiko saiok. «Lehenengo irratiarekin genuen funtzionamendu bera da berriarekin ere, hau da, ikasturtearen hasieran plangintza egiten dute ikasleek elkarrizketatuko dituzten herritarren zerrenda eta jorratuko dituzten gaiak zehazteko; baina, ordenagailua erabiltzea errazago egiten dugu lan, eta kalitate maila handiagoa lortzen dugu», diote eskolako irakasleek. Halaber, «elkarrizketak eta egitera doazenean, kasetarekin joan beharrean grabagailu digitala erabiltzen ikasi dute, eta ondoren grabatutako hori ordenagailura pasatu eta bertan aldaketak egiten badakite», gehitu dute. Gauza bera gertatzen da aldizkariarekin, «ordenagailuen bidez, argazkiak aukeratzeko, testuak egiten eta horiei forma ematen ikasi dute, eta lan txukuna kaleratzen dugu».

«Honekin guztiarekin, ikasleek txikitatik gailuak nola erabili ikasteaz gain ilusio handiagoarekin lana egitea lortzen da, badakitelako euren lanak herriari ikusiko dituela», diote Muñagorri eskolan. «Gainera, orain arte eskolan egindakoak, bertan geratzen ziren, ikasgiletan, baina orain gurasoek euren seme-alabek egiten dutena ikusteko aukera dute».

## Telebista, hurrengo erronka

Telebista oraindik martxan ez badago ere, uste dute herritarrek laster izango dutela gaztetxoekin prestatutako lanak ikusteko aukera. Kasu horretan, bideokamera digital baten bidez grabatuko dituzte irudiak, eta moldatu eta gero, irratiarekin bezala, Berastegiko intransen edo barne sarearen bidez zabalduko dute seinalea.

Ikus-entzunezkoen erabilera hezkuntzan duen garrantzia azpimarratu dute Muñagorri eskolan, «testu mota guztiak lantzen dituzte, nola elkarrizketatu, albisteak nola egin, eta euren interesa areagotzen da». Sicos enpresak, bestalde, «proiektuaren onurak» ikusita, landa eremuko beste herrietan ere abian jartzeko asmoa azaldu du.

## iragarki laburrak ▶



**Albitzur.** Zatituriko baserria salgai. Berrikuntza behar du. 200 m<sup>2</sup>-ko hiru solairu eta 35.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Alkiza.** Bi familientzako baserria salgai. Berritzeko. Informazio pertsonala.

**Andoain.** 80 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Ilogailuarekin. Ikuspegi ederrak.

**Berastegi.** Familia bakarrarentzako etxea salgai. 4.000 m<sup>2</sup> dituen lursailarekin.

**Berrobi.** 50 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Berritua.

**Donostia.** Portu-Ene. Berrituriko etxebizitza ederra. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak.

**Elosua.** Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Irura.** Laskibar aldean, eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Zumalakarregin, 150 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Egoera ezinhobean. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.

**Tolosa.** Pablo Gorosabelen, martxan dagoen lokal komertziala

salgai. Informazio pertsonala eskaintzen dugu.

**Tolosa.** Gernikako Arbolan, 35m<sup>2</sup> dituen lokal komertziala salgai. 35 m<sup>2</sup>-ko sotoarekin.

**Tolosa.** Maituna zonaldearen atzealdean, trastelekuak salgai. 8.600 eurotik aurrera. Berriak.

**Tolosa.** Beldura plazan, berrituriko lokal komertziala alokairuan. Guztia erakusleho.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Karrape, Sahararako elkartasun biltegi

Tindufeko kanpamenduetako uholdeek eragindako kalteak moldatzeko diru laguntza biltzeari ekin diote irratian

JAIONE ASTIBIA

**T**induf: Argeliako desertuko lurralde bat, Saharar herriko errefuxiatuen kanpamenduen kokalekua. Otsailaren 9, 10, 11: uholdeak eragin dituen eurite tropikala, Smara, Aaiun, Ausserd eta batez ere otsailaren 27an kanpamenduak «txikitu» dituena.

Leitzako Karrape Irratian, Saharar Herriarekin Elkartasun Taldearekin batera, diru biltzeari ekin zioten atzo eguerdiarte, eta «aste guztian zehar horretan ariko gara», iragarri zuten. Bertan jasoko den «borondateko laguntza» hori, han, kanpamendutan dagoen kide baten bidez Iargi Erdi Gorrira bideratuko dute. Hain zuzen ere, beragandik zuzeneko testigantza jaso zuten atzokoan, bertan ikus zitezkeen argazkiak jabetzeko.

«Ez dago kanpamendurik. Jendea dunetara igota dago soinean duenarekin, izututa, berriro iragarrita dauden euriteen zain. Kanpamenduak zuden lekuan, orain ur-putzuak daude, itotako ahuntz eta ganbeluen gorpuz beteta; eta umeak, sekula euririk ikusi gabek izanik, jolasean dabilz hor», azaldu zuten handik.

## Desagertuta

Errefuxiatu sahararrak, milaka eta milaka, «70.000 lagun, deus gabe gelditu dira. Urak dena eramane du: haimak, adobeak etxeak, eskolak, eritxetxeak, ahuntzak, ganbeluak, elikagaiak, sendagaiak... Zuten guztia. Soinean daukatenarekin gelditu dira», kontatu zuen bertatik.

«Inolako babesik gabe» egonik, «guztiaren beharra» dagoela azpimarratu zuen berak ere. «Hori dena erosi egin behar da eta azkar. 0 gradutik be-



Otsailak 27 kanpamenduko irudi bat uholdeen ondoren. HITZA

## 70.000 sahararri eragina

Hilaren 9tik 11ra, ostegunetik larunbatera Argeliako Tinduf lurraldean egindako «euri tropikalek» uholdeak eragin dituzte han kokatuta dauden Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan, «azpiegituretan %50 baino gehiago» kaltetuta suertatuz, Saharako Barne Ministeritzak jakitera eman eta Sahara Press-ek argitaratutako datuen arabera.

Iturri berek jakitera eman dutenez, «errefuxiatuen artean ez da inolako hil, ez eta larri zauritu ere, egoera bera oso larria izan arren». Zentzu horretan, bertako Iargi Erdi Gorrira erakundeak, Gurutze Gorriraren pareko litzatekeenak,

heko temperatura egiten du hemen orain, eta izurriteak etor litezke. Esate baterako, urik ez dago. Uraren konteinerrak kutsatuta daude, eta Argeliatik urgentziaz ekarri zuten ura horietara ixuri zutenek, hura ere kutsatuta gelditu da», zehaztu zuen. «Dirua behar da. Handik [hemendik] materialak bidaltzea baino, hobe da, azkarra-

emandako datuen arabera, «12.000 familia inolako babesik gabe» gelditu dira, egindako lehen balantzeetan: «Uholdeak zituzten ondasun eta elikagai urriak eramane ditu, eta gure erakundeak ez du, egun, denda-haima erreserbarik, iaz ez zuelako modu honetako laguntzarik jaso, eta urgentziazko elikagaiak, gehienez, martxorako bukatuko dira». Bestalde, izurriteen arriskuak ere ohartarazi zuten, «zeuden sendagai apurrak ere desagertu egin dira», azpimarratu. Nazioarteari dei egin dio, saharar errefuxiatuen beharrei arreta eskaini diezaion, urgentziaz. ◀

goa ere badelako, Argelian bertan erostea, merkeagoa ere badenez, gehiago erosi daitezke gainera», ziurtatu zuen.

Besteak beste, elkartasunerako telefono zenbaki honen berri eman dute: 948 610 914.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Hainbat atal.** Gure web orrian gure herrietako berri jakin dezakegu noiz-nahi. Bai egunean gertatutakoari buruz, bai agendako iragarpenei buruz, herrietako irudiak, eztabaidak, inkestak... Hainbat atal ditugu eskuragarri. Erabili eta ikusi!

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zerbitzaria.** Tabernarako zerbitzaria behar da Amasan. Lanaldi erdia. Interesatuak deitu 943 69 12 10ra.  
**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan

4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Interesatuak deitu 635 74 52 91ra.  
**Tabernaria.** Goierriko tabernakafetegi baterako pertsona bat behar da. Deitu 610 61 52 32 telefonora.

18/98 AUZIA ▶

## Manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte

Tolosan nahiz Leitzan, Bilbora joateko garraioa antolatuko dute larunbatean



Villabonan egin zuten 18/98 auziaren aurkako manifestazioa. i. g.

J. ASTIBIA

Larunbatean Bilbon egiteko den manifestaziora joateko autobusak antolatuko dituzte hainbat herritan. Jakitera eman dutenez, gure bi eskualdeetan, Tolosan eta Leitzan ere horixe egingen dute. 18/98+ herri ekimenak Bilbon larunbaterako antolatu duen manifestaziora joateko deialdia egin zuen. Madrilen (Espainia), Auzitegi Nazionalan, gizarte eragile edota politikoko diren taldeetan lan egin edo harremanen bat izateagatik hamardaka euskal herritarren aurka egiten ari diren makro-epaiketaren aurka egingen dute manifestaldia. Epai-

tutakoen artean dira, besteak beste, Tolosaldeko hainbat herritar ere.

Manifestazio honen deitzaileekin eta aldarriarekin bat egin dute Euskal Herriko gizarte eragile sindikal eta politikoen gehiengoak.

Horrela, bertara joateko, Leitzaldetik, autobusa, egun horretan 14:30ean aterako dela iragarri dute. Zabaletako ataritik, eta bertan joan nahi duenak izena ostirala baino lehen Torreean eman behar duela. Tolosatik, berriz, 15:30ean aterako da autobusa, Triangulotik. Kasu honetan, Raku tabernan eman behar da izena, hemen ere ostirala baino lehen.



**KM**  
kulturan

Koldo Atxekano Kulturaren  
Lantzeria Kalea 5 • 20006 DONOSTIA  
Tel: 943 11 28 93  
programazioa@kispurkua.net  
www.kispurkua.net/kultura

## ERAKUSKETAK

### Erakustaretoan

Urtarrilak 31 - Martiak 25

*Artea, gertatzen den gauza.  
Jardun kontzeptuaren  
jatorria Espainian  
(1965-1980)*

---

## Ganbaran

Otsailak 8 - Aprilak 1

*Arkitektura eta eskultura  
Arantzazuko Basilikan*



ORDUTEGIA  
asteartetik larunbatera:  
10:30-14:00 / 16:00-20:30  
astelehen, igande eta jaiegunetan itzita.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Eresoinka abesbatzan aritutako kantarietzako bazkaria antolatuta dute igandean. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84an edo 677 43 89 49an.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** Lan arloaren inguruko hitzaldia. 19:00etan, Otsabi lokalean. Sanblaspioko Gazte Asanbladak antolatuta.

**INAUTERIAK**

**Amezketak.** Talai-dantza entseguak. Asteazkenetan eta ostiralean, 20:30ean, udaletxe azpian.

**Anoeta.** Kaldereroetako entseguak. Bihar, 19:00etan, Kulturunean.

**Tolosa.** Zaldunita bezperako danborradarako entseguak. Gaur eta bihar, 20:00etan, Kultur Etxean; eta hilaren 21ean, 20:15ean, Musika Eskolan.

**Tolosa.** Aiz-Orratz elkarteak 7 urteko haurrei dei egin die haur danborradan mikelteaz ateratzeko. Interesa duenak elkartera agertu behar du, bihar edo etzi, 19:00etan.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**Belauntza.** Ainhua Arregi belauntzarraren argazki proiektzioa. Bihar, 20:00etan, Kultur Etxean.

**ZINE-KLUBA**

**Alegia.** Camino a la perdicion. 21:30ean, Gaztebtxean.

**Tolosa.** El principio de Arquimedes. Bihar, 21:30ean, Kultur Etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza, Plaza, M. Elbarren, 35. 112.  
 Tolosa, Morant, R. Zabalarreta, 1.  
 943 67 38 49.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.  
 18:00-19:00. Irauli uhinak.  
 21:00-22:30. Bide okerretik.


▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



120 marrazkitik gora ikus daitezke Alde Zaharreko erakusleho eta txokoetan; Kaldereroen bueltan kenduko dituzte. L. MONTES

# Artista txikien apaingarriak

**I. HITZA MARRAZKI LEHIAKETA ▶ HITZAK eta Alde Zaharreko merkatariek antolatutako marrazki lehiaketako lanak, Alde Zaharreko txokoak alaitzen**



Alde Zaharreko kaleak dotore daude lehiaketako marrazkiekin; argazkian, Korreo kalea. L. MONTES

**ERREDAKZIOA**

**E**skualdeko euskarazko egunkarian izan ziren lehendabizi ikusgai, eta orain Alde Zaharreko kaleetan. Tolosaldeko eta Leitzaldeko 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoek I. Hitza Marrazki Lehiaketarako egindako lanak dira. 120 marrazkitik gora, guztira.

Hitzaren eta Alde Zaharreko merkatarien elkarlanean sortu zen marrazki lehiaketa eta baita ondorengo haur jaialdia ere. Arrakastasuak izan ziren biak ala biak. Orain, Alde Zaharreko dendetako erakuslehoak eta txokoak apaintzen dituzte lehiaketako lanek. «Argazki lehiaketako irudiek arreta piztu zuten bezala, marrazkiek ere jendearen atentzioa erakartzen dute. Batez ere umeak gelditzen dira erakuslehoen aurrean, beren marrazkiak edo lagunenak ikusteko», azaldu diote HITZARI merkatariek. Kaldereroen bueltan, marrazkien lekukoa hartuko dute Inauterietako apaingarriak.

**AGURRAK ▶**

**HITZA, zorion agurren tartea**  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
 Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!